



# ESKUALDEKOAK KONTXAKO BANDERAREN BILA

Getaria-Tolosako neskek Kontxako Banderaren sailkapen proba izango dute etzi; sailkatuz gero, igandean dute finala >2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2009-09-10**

VIIURTEA 1.772.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**PANTXOA ETA PEIO** ABESLARIAK

## «Gure helburua euskara eta herria kantuararen bidez bizitzea da»

**TOLOSA** Lapurtar bikoteak '40 urtez gurekin kantuz' kontzertua emango du bihar 22:00etan, Leidor aretoan

**OMENALDIA** Jarraitzaileei, euren kantu egileei eta kantu herrikoari eskainitako emanaldia dela azaldu dute 3



**Oinezkoen bideak egokitzen ari dira Altzo Azpin eta Abaltzisketan**

**AZPIEGITURAK** Lurpeko saihebideta ari dira egiten Alegialdean 6

**JOSUNE GOROSTIDI**  
TRONTZA TXAPELDUNA

«Txapela errekorra eginez irabazi izanak asko bete nau»

**TXARAMA** Trontza Txapelketa irabazi berri du Lurdes Intxaustirekin batera 7

L.T.



HITZA udako argazki lehiaketa



bidali opor  
hauetako  
argazkiak!

**NORA BIDALI?**

[tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) helbide elektronikora edo  
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara



sari  
mundialak





Tolosaldeko, Getariako eta Orioko neskek osatzen duten trainerua faborito da aurten, Kontxako Banderan; denboraldi bikaina egiten ari da. HITZA

## Asteburu honetan Kontxako Banderaren bila joango dira Tolosa eta Getariako neskek

**Arrauna** » Etxe, 18:00etan jokatu da sailkapen proba; 11 traineru lehiatuko dira bertan eta horietatik lau igaroko dira finalera.

### ESTI EZEIZA

Bigarren, Kontxako uretan ikusiko ditugu Tolosako neska arraulariak. Iaz antolatu zen estreinakoz Emakumezkoen Kontxako Bandera, eta asteburu honetan berriro ere jokatu da. Larunbatean, 18:00etan izango da sailkapen proba, eta igandean bertan, 11:00etan Ohorezko estropada.

Gizonen traineruen txapelketan, estropadatik garrantzitsuenetako da Donostiako uretan jokatzeko dena, eta iaiztik, nesketan ere hitzordu garrantzitsu bilakatu da.

TAKeko neskek iaiz beraiek bakarrik ateratu zuten trainerua. Orduan, beraiez gaien, Kantauri eta Mediterraneo zortzi talde lehiatu ziren Donostian. Aurten berriz, eskualdekoekin batera Getariako neskek izango dira ontzian. Gainera, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketa irabazi ostean, beraiek dira asteburu honetako hitzorduko faborito nagusiak.

Larunbatean, hamaika ontzi itsasoratuko dira. Hauetatik, lau sailkatuko dira finalerako, denbora onena egiten dutenak. 1,5 miliatako distantzia bi luzetaran banatuta egin beharko dute, ziaboga bakarra eginaz.

### Afizioari Donostira joateko deia luzatzen dio TAKek

Denboraldi bikain bati amaiera ezin hobe ematea izango litzateke TAKentzat, Kontxako Bandera irabaztea. Gipuzkoako eta Euskaldiko txapelketaz gain, Zarauzko ikurriña eta Eusko Treneko lehendabiziko nahiz azkeneko estropadak irabazi dituzte. Hala, Rias Baixaseko, Galiziako selekzioa garaitzea lortu zuten bertan. Aipatzeko da eskualdekoen eta galiziakoen artean dagoen lehia sortzen ari den oihartzuna. Izan ere, iaiz beraiek etxeratu zuten Kontxako bandera preziatua, eta aurten, hau kentzeko asmo irmoa dute TAKekoek.

Eztaibaidez inguratuta dator hala ere, aurten emakumezkoen norgehiagoka. Izan ere, hiru txandatan banatuta lehiatuko dira hamaika traineruak, eta Tolosaldekoek hau ez dute ongi ikusten. Taldeak luzatutako ohar batean aditzera eman dutenez, «lehendabizikoa jokatzeko denetik azkene-

kora, ordubete inguru igaroko da, eta itsasoaren nahiz haizearen egoerak eragina izan dezake sailkapen proban». Hori dela eta, antolaketari idatzi bat luzatu die Gipuzkoako talde guztien izenean, eskatuz, erlojuaren aurka jokatuko proba, eta ez hiru txandatan. Hau traineru guztientzako «bidezkoena» izango litzatekeela argudiatuz. Baina antolatzaileek beraien lehendabiziko ebazpena ez aldatzea erabaki dute.

### Igandean gizonen txanda ere izango da

Nesken finala jokatu ostean, gizonen txanda ere izango da igandean bertan. Hauen norgehiagoka 12:00etan hasiko da. Bertan zazpi traineru lehiatuko dira. Lehendabiziko txandan, Pedreaña, Urdabai, Orrio eta Donostiarra izango dira aurrez aurre. Ohorezko txandan berriz, Kaiku, Castro eta Sanpedrotarra.

Joan den igandean jokatu estropadan Kaiku taldea izan zen garaile, 19 minutu eta 11 segundoko denborarekin. Atzetik, ia sei segundu beranduago iritsi zen helmugara Castro, eta 19:21eko denborarekin sailkatu zen berriz, Sanpedrotarra. Berriz, zaila izango dute, Kaikuri Bandera kentzea gainontzeko taldeek.

### » ZENBAIT DATU

#### Nesken taldeak

- Bizkaia (Euskal Herria).
- Club de Remo A Cabana (Ferrol, Galizia).
- Club Natacio Badalona (Herrialde Katalanak).
- Club Rem Badalona (Herrialde Katalanak).
- Club Remo Mecos (Mondariz, Galizia).
- Getaria-Tolosa (Euskal Herria).
- Hondarribia arraun taldea (Euskal Herria).
- SDR Rias Baixas (Galizia).
- Sociedad Deportiva de Remo Astillero (Kantabria).
- Urkirolak (Euskal Herria).
- Zumaiako arraun elkarte (Euskal Herria).

#### Sailkapen estropada

- Irailaren 12an, 18:00etatik aurrera.

#### Ohorezko estropada

- Irailaren 13an, 11:00etan.

#### Tolosa-Getariako arraulariak

- Amaia Doyague, Maialen Zaldegai, Maitane Garmendia, Maite Armondarain, Naroa Urkola, Olatz Aldalur, Joana Alijoster, Olatz Ortiz, Irati Larrañaga, Itziar Olasagasti, Sarai Lizaso, Ane Balentziaga, Ederne Seguroa, Ane Bordagarai, Mertxe Aizpurua, Olatz Arregi, Leire Baraibar, Eneida Etxabe eta Nekane Arakistain.

#### Sarreraren prezioak

- Arrunta, 3,40 euro.
- Jubilatua, 1,80 euro.
- 8-12 urte artekoak, 1,80 euro.
- 8 urte artekoak, dohainik.
- Tribuna, 6,50 euro.
- Tribuna, 8 urte arte. Eserlekurik okupatu gabe, dohainik.
- Sarreraren salmenta tokiak eta ordutegia: Aquariuma (tribuna barria), Usotegia, Paseo Berriaren sarrera, San Telmo, Gurutze Gorria (kaiaren punta), Santa Teresa, Fermin Calveton eta Mari arteko kantoia, Nautikoa (tribuna barria), Londres hotela, Peñafloresta eta Kontxaren lehenengo sarrera. Sarrerak txarteldegietan salduko dira egunean bertan 09:30etatik 12:30etara.

## Laburrak

### Udaberrin dantza eskoletan izen-ematea

**KULTURA** ■ Kurtsoa hasi den honetan, Udaberrin Dantzari Taldekoek urtero legez antolatzen duten haurrentzako ikastaroak ekin die. Gaur eta bihar saio hauetan izena emateko aukera izango da Udaberrin lokaletan (Sakramentinoen elizaren ondoan) 17:00etatik 20:00etara bitartean. Eskolak ostiral arratsalde edo larunbat goizetan izango dira, talde kopuruaren arabera.

### Gaur, 'El apartamento' film klasikoa ikusteko aukera

**KULTURA** ■ Gaur Zine Forumean, *El apartamento* filma izango da ikusgai. Ohikoa den bezala, lehendabiziko saioa 19:15ean izango da, eta bigarrena, 21:45ean. 1960an estreinatutako Billy Wilder-en filma hau, eta bost Oscar irabazi zituen. Jack Lemmon eta Shirley MacLaine dira, besteak beste, komedia honetako protagonistak. Orain, jatorrizko bertsioan ikusi ahal izango da Leidor aretoan.

### Arroilen jaitsiera antolatuta Oargik hilaren 18rako

**ASIA** ■ Oargi mendi elkarrekin hainbat irteera antolatu ditu hil honetarako. Asteburu honetan Pirineoetara joango dira eta hurrengoan berriz, arroilen jaitsiera egingo dute. Hilaren 18tik 20ra joango dira hara. Irteera honetan parte hartu ahal izateko alde aurretik izena eman beharko da 688 69 86 42an edo [info@oargi.org-n](mailto:info@oargi.org-n) eta 3035 0028 11 0281141038 kontu korrontean 20 euroko diru sarrera egin. Interesa dutenek hilaren 14a baino lehen egin beharko dute hau.

### Aezkoak bailarara mendi irteera, Alpino Uzturrekin

**ASIA** ■ Alpino Uzturre elkarrekin hilaren 13rako mendi irteera antolatu du. Txangoa Orbaran hasiko da eta Berrendi (1.354 metro), Goñiburu (1.464 metro), Idorrokia (1.492 metro), Abodi (1.533 metro) mendiak igoko dituzte. Autobusaren irteera Santa Klaratik izango da 07:30ean. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoak 13. Izen-ematea elkarrean bertan, edo 943 65 27 89 telefono zenbakira deituta egin daiteke. Baita Internetez ere, [alpinouzturre@hotmail.com-en](mailto:alpinouzturre@hotmail.com-en).

### EPAko ikastaroetan izena emateko epea zabalik da

**HEZKUNTZA** ■ EPA, helduen hezkuntzako zentroak ikasturte honetarako ikastaroen eskaintza prest du. Denera 10 dira, eta hauetan izena eman nahi duenak ikastetxera bertara jo beharko du ondorengo ordutegian: 10:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 18:00etara.

Tolosaldeko komunikazio talde batek  
**Kazetaritza edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar ditu.  
Interesatuak deitu  
**661 678 817** telefonora



### Irurako Udala OHARRA

Irurako Udalak onartu berri du Irurako bizitegiareko hiri lurzoruko hainbat enantzioko lokaletan hirugarren sektoreko erabileratik (denda, garajak) bizitegiarako erabilera (etxebizitzak) aldatzeko jarduketak eratzeko Ordenantza. Hori horrela, 2009ko irailaren 9tik urriaren 15era jenduraren egongo da Udaltzeko bulegoan gozoko 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, epe horretan interesatuak ordenantza aztertuko, eta egokiak deniztzen errekamazioa eta iradokizunak burkeaz dizaten. Honako iragarri hau argitaratu ematen da gutxiestekin dezetan.  
Iruran, 2009ko irailaren Ban. ALKATE-LEHENDAKARIA

**E Elkarrizketa**

**PEIO ETA PANTXOA** Abeslariak



LT.

# «Euskara eta herria kantuaren bidez bizitzea da gure helburua»

**Kultura** » '40 urtez gurekin kantuz' emanaldia eskainiko du lapurtar bikoteak, bihar, Leidor aretoan; zuzeneko grabaketa saioa izango da.

INIGO TERRADILLOS

Euskal kantugintzan protagonismo berezia duten Pantxo eta Peio zuzenean entzuteko aukera izango da bihar, Leidor aretoan, 22:00etatik aurrera. **40 urtez gurekin kantuz** izeneko emanaldia eskainiko dute, eta saioa grabatzeko baliatuko dute. Sarrerak leihatilan eskuratu ahal dira 10 euroan, zine ordutegian. Peio Ospital (Ezpeleta, 1948) eta Pantxo Carrere (Azkaine, 1948) «gogotsu» daude kontzertuaren atarian, eta «baita urduri ere, zuzeneko saio baten aurrean ohikoa den bezala».

**Nola aurkitzen zarete biharko zuzenekoaren aurrean?**

**Peio Ospital.** Gogo handiarekin, baina betiko urduritasun horrekin, kontzertua hitzordu bakarra izaten baita, ez da errepikatzen.

**Pantxo Carrere.** Gogotsu eta urduritasun pixka batekin, baina hori jaialdi guztietan gertatzen da; hau, gainera, grabaketa ere izango da, baina nahiago dut horretan ez pentsatu.

**Zergatik aukeratu duzue Tolosa?**

**P. O.** Gure ibilbidearen 40. urte-muga dela-eta Tolosaldeko nahiz Goierriko jarraitzaileei eskerrak eman nahi dizkiegu eskaini diguten babesa eta arretarengatik.

Baionan ere egin genuen apirillean Iparraldeko jarraitzaileei eskainia, eta orduan egoki ikusi genuen gauza bera Tolosan egitea.

**P. C.** Orokorrean, Hegoaldeak beti harrera ona egin digu. Iparraldeko bi gazte xume ginen hasi ginenean, eta Tolosa ingurura joatean beti harrera beroa egin digute. Gu Iparraldea ezagutarazten saiatu gara, eta Hegoaldeaz ere asko ikasi dugu azkenean. Hego eta Iparraren hurbilketa hori kantuaren bidez egin izanagatik pozik nago.

**Baionako esperientzia zer moduzkoa izan zen?**

**P. O.** Oso hungikarria izan zen. Baionako antzokia bete egin zen, eta jendeak oso ondo pasatu zuen. 40. urtemugaren aitzakian jarraitzaileak eskertu nahi ditugu, baina, aldi berean, gure kantu egileen omenezko emanaldia ere bada. Izan ere, gu kantu sortzaile bakoitza abeslariak gara. Zoritxarrez, gure kantu egile batzuk zenduak daude, Telesforo Monzon, Roger Idiart edo Iratzeder, esaterako. Beste batzuk zorionez, bizirik jarraitzen dute, Manex Pagola eta Jean-Louis Davant, adibidez. Horiek guztiak omendu nahi ditugu. Halaber, kantu herrikoiaeren ospakizuna izatea du helburu kontzer-

tuak, hori baita gure helburua, kantuaren bidez, euskara eta herria bizitzeko aukera izatea. Beraz, gauza asko daude jokoan saio honetan.

**Zuzeneko grabatu egingo duzue, beraz, diskoa izango daurrengo pausoa.**

**P. O.** Ideia horrekin grabatuko dugu emanaldia, baina hori kontzertuaren ostean ikusi beharko da.

**Nolako kontzertua espero duzue?**

**P. O.** Harrera beroa espero dugu. Psa den urtean Ibarran izan ginen, eta 1.000 lagun inguru bildu ziren, beraz, gure itzaropena hori errepikatzea da.

**40 urte bete dituzue kantuan. Askorako emango dute urte horiek guztiak.**

**P. O.** Niretzat oso garrantzitsua da kontzertua amaitzean jendearekin egon eta lekukotasunak hartzea. Kantuari jendeak bizipenak lotzen dizkio, eta hainbat pasadizo kontatzen dizkigute. Hori izaten da hungikarriena. Esaterako, euskara ikasten hasi zela gure kanta entzutearen ondorioz azaldu zigun behin jarraitzaile batek, eta beste batek, berriz, istripu larria izan eta ospitalean gure abestiak soilik entzun nahi zituela. Bizipen hauek oso garrantzitsuak dira, askorentzat gure musika ibilbide lagun izan baita.

**P. C.** 40 urte hauetan urte bereziak izan dira. Lehen urteetan diktadu-

ra garai izan zen, eta Iparraldean, orduan sortu ziren Ikastolak eta jaialdiak. Kantuari esker Iparraldeak Hegoaldeko kantugintza asko ikasi du. Hala ere, ez dut urte bat bestea baino gehiago bereiztu nahi, beti ukan baitut plazerra edo zein urteetan jarraitzaileekin bat egitean.

**Sorreatik, hau da, 1970. hamarkadatik gauza asko aldatuko ziren. Nola gogoratzen dituzue garai haiek?**

**P. O.** Emozio handiz gogoratzen ditut. Gazteak ginen, 20 urte genituen, eta Hegoaldera joaten ginenean, eta batez ere, Tolosaldera eta Goierriara, harrera oso beroa egiten ziguten. Lehen kantaldia Bergaran izan genuen Telesforo Monzonen herrian, hain zuzen.

**P. C.** Diktadura garaian kantuak indar berezi bat zuten, guztia debekatua zegoenez mezuak zabaltzeko erabiltzen baitziren. Jende mordo biltzen zuten kantaldiek. Kantugintzaren militante sentitu dut nik beti neure burua.

**Politikak protagonismo handia izan du zuen musikan, hasieran, batez ere.**

**P. O.** Franko hil aurreko eta ondorengo urteak izan ziren gure sorrerakoak. Sekulako giroa egoten zen Hegoaldean. Artean, alderdi politikoak eta prentsa ere debekaturik zeuden, eta kantaldiak, nolabait, leku bakarra izaten ziren euskaldunek euren nortasuna kolektiboki kanporatu edo erakusteko. Fun-

tzio soziala betetzen zuten euskal kantuak, eta guk horretan parte hartu dugu. Oso urte itzaropentsuak bizi izan ziren, eta elkartasun handia zegoen euskaldunen artean.

**Zuen abesti asko belaualdiz belaualdi igaro dira, tartean, asko esanahi berezikoak.**

**P. O.** Hori ere oso hungikarria da. Gure kontzertuetan adin guztietako jendea ikus daitekeela esan daiteke. Abesti horietako batzuk, zoritxarrez, beren gaurkotasuna gorde dute. Ez dakit Telesforo Monzonek torturaren gaia nola jorratuko lukeen gaur egun, baina, zoritxarrez gaurko gaia ere bada. Jendeak kantu horiek kantatzea eskatzen du, eta guk pozik abesten ditugu.

**P. C.** Gure kantu estiloagatik izan daiteke, zorte hori dugu behintzat, abestiak ezagutzen dituztela gazteek nahiz adinekoek, eta plazerra ematen du horrek.

**Aurrera begira, lanean jarraitze-ko gogoz zaudete?**

**P. O.** Lana diozu, baina guretzat gozamen da. Jendearekin egon, euskara eta herria bizi kantuaren bidez. Horregatik egiten dugu.

**P. C.** Jarraitzeko gogoak dit. Kantugintza ahal bezain ongi egitea izan da beti gure asmoa. Guretzat plazerra izan da, ez lana, gustura egitiko zerbait.

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuak deitu 679 81 90 42 telefono zenbakira.



## Elbarrenako jaiak hasi dituzte

**ZIZURKIL** • Ekin zioten atzo Zizurkilen Elbarrenako jaiak. Goizean goiz Xibakoek jarri zuten festa giroa eta hainbat joku egin zituzten haurrekin. Arratsaldean ikusmina sortu zuten kros mistoak. Helduen mailan, lehenengo hiru bikoteak hauek izan ziren: Enrike Arabaolaza-Karmen Perea donostiarrak (19:30); Joxe Mari Etxeberria-Nerea Amilibia zizurkildarrak (19:59); eta Mikel Legarreta-Ainhoa Jauregi urnietarrak (20:05). Gaurkorako ere hainbat ekitaldi izango dira: 13:00etan, jubilatuen jokoak; 14:00etan, jubilatuen bazkaria Atxulondon; 17:00etan Pirritx eta Porrotx, eta ondoren txokolatada eta buruhandiak; 20:00etan Kantu Kale; eguna amaitzeko, 23:00etan Laket taldea. i.g.

## Hilaren 21ean hasiko dira Abraham Olano kiroldegiko jarduerak

**Anoeta** » Datorren asterako jardunaldi irekiak antolatu dituzte eta horretarako izena emateko azken eguna gaur da.

### » KIROL ESKAINTZA

#### 16 urtetik gorakoentzat

■ **Urteko jarduerak.** Hirugarren adineko gimnastika, aerobik, fitball, multifitness, pilates, stretching.  
■ **Hiruhileko jardunaldiak.** Yoga, patinaia eta cycling.

#### 16 urtetik beherakoentzat

■ **Urteko jardunaldiak.** Gimnastika erritmikoa 1, gimnastika erritmikoa 2, judoa 1, judoa 2, psikomotrizitatea, tenisa 1 eta tenisa 2.  
■ **Hiruhileko jardunaldiak.** Cycling 1 eta cycling 2.

16:15era eta 20:30etik 21:15era fitball izango da. Hilaren 15ean 09:15etik 10:10era, aerobik. Hilaren 16ean, 11:15etik 12:10era, 3. adineko gimnastika, eta 14:15etik 15:00etara cycling. Hilaren 17an, 19:15etik 20:00etara, cycling. Azkenik, hilaren 18an, 10:15etik 11:45era stretching.

### ERREDAKZIOA

Abraham Olano kiroldegiko jarduerak hilaren 21ean hasiko dira, bai urteko jarduerak direnak bai hiruhilekoak direnak. Izena emateko epea irekita dago eta zenbait ikastaro ia beteta daude dagoeneko. Kiroldegitik gogoratu dutenez, abonoa atera daiteke nahi denean, horretarako dauden aukerak baliatuz.

Bestalde, datorren astean jardunaldi irekiak antolatu dituzte kiroldegian. Hilaren 14tik 18ra izango dira saioak, doan, eta bertan parte hartzeko izena eman beharra dago. Horretarako gaur da azken eguna. Hilaren 14an, 15:30etik

## Kantabria mendilerroa antolatu dute mendi itzulia Sagainekoek

### ERREDAKZIOA

Asteasuko Sagain mendi taldeak mendi itzulia antolatu du igande honetarako. Arabar Errioxara joango dira, Kantabria mendilerroa, Bonete de San Tirso igotzeko asmoz. Ibilaldia Kripan herritik hasi, Montorte ingurutik pasa eta Bonete de San Tirso hertzeko asmoz egingo dute. Eguraldiak laguntzen badie, aldamenean dagoen San Tirso (1.329 metro) igotzeko aukera ere izango dute. Sagainetik azaltzen dutenez, Kantabria mendilerrotik «ikuspegi zoragarriak» daude.

Ibilaldia zailtasun gutxikoa da, lau ordu ingurukoa. Bidaia egun osokoa izango da eta autobusa Asteasuko plazatik abiatuko da 08:00etan. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dute autobusgatik eta 12 urtetik gorakoek 10 euro. Izena kiroldegian eman behar da eta gaur izango da azken eguna.

## Ordiziako Euskal Jaiko zenbait sari eskualdekoentzat

**Ekonomia** » Besteak beste, Albizturko Olateaga Goikoa baserriak euskal oiloen lehiaketan sari nagusiak irabazi zituen.

### ERREDAKZIOA

Ordiziako Euskal Jaia ospatu zuten atzo eta bertako azoka berezian banatzen diren sarietako batzuk eskualdera etorri dira. Aipatzekoa da Albizturko Olateaga Goikoa baserriak euskal oiloen lehiaketan sari nagusi guztiak eraman dituela.

Hain justu, Albizturko baserriko Maria Luisa Zuriarrainek lehenengo saria eraman du bai lotean bai oilo gorrietan. Baserri bertako Naia Goikoetxeak oilo zilarretan eraman zuen lehen saria. Iaz ere baserri bertako oiloek jaso zuten sari nagusia.

Barazkiei dagokionez, Dani



Ordiziako Euskal Jaiko azoka berezia, atzo. GOIERRIKO HITZA

Oiartzabal Anoetako Goiz Eguzki baserrikoak hirugarren saria jaso zuen. Bestalde, Plaza Nagusiko feriako aipamenak jaso zituzten eskualdeko hiru ordezkariak: Maria Jesus Mujika Baliarraingo Gorostortzu baserrikoak, Edurne Jauregi Baliarraingo Irabiazpi baserrikoak eta Ibarrako Montes Etxeak.



TXOKOAK HITZA

HITZAK harpidedunentzat 4 sarrera pare ditu

### Peio ta Pantxoak

«40 URTEZ GUREKIN KANTUZ»  
(Zuzeneko grabaketa)

Irailak 11 • Ostirala  
22:00etan  
Tolosako Leidorren

sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula



sarrerak





Artubikoek azal dutakoaren arabera, 1.500 lagun elkartu ziren igandean. HITZA

## Artubikoak «oso gustura» aurtengo jaiek emandakoarekin

**Bedaio** » Aimar Irigoienek marka saiakerak bildu zuen jenderik gehien; bestelako ekitaldiak ere «arrakastatsuak» izan dira.

### ERREDAKZIOA

Jaien Antolaketa gogorra izan ohi da baina emaitza onak ikusita pozik geratu ohi dira antolatzaileek. Hori gertatu zaie Bedaioko jaiek antolatzen buru-belarri aritu diren Artubi elkarteak kideei. Herenegun amaituta, balorazioa egiteko garaia heldu zaie eta «aurtengoak jendetsuenak» izan direlagoraipatu dute. Eguraldi onak lagunduta «giro bikaina» izan da egunero.

Ekitaldi guztien artean igandean Aimar Irigoienek eginiko marka saiakera aipatu dute elkartetik. Datuek ere horrela erakusketan dute; 1.500 lagun baino gehiago hurbildu baitzen Bedaiaora.

«Etorritakoek gustuko saioa ikusi dute eta zorianak eman dizkigute egindako lanagatik eta antolakuntzagatik eta hori harro sentitu arazten digu, eginiko lanaren ordainik handiena baita», diote bedaiotarrek.

### Eskerrak

Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkiete lagundu dieten enpresei «baita urtero jai politikatzeko parte hartzen duten herri-targuzitei ere».

## Udako atsedenen ondoren, izaera finkoa emango diote azokari

**Ibarra** » Postu bat jartzeko eskaeren aurkezpen-epaia irailaren 14a baino lehen aurkez dezakete interesa dutenek.

### ERREDAKZIOA

Udal azoka berriz ere abiarazi dute uda garaiko atsedenen ondoren. Saltzaileen postuak berriz ere Emeterio Arrese plazara bueltatu dira euren produktuak erakusteko, ohiko ordutegiarekin, hau da, ostegunero, goizeko 08:00etatik 14:30era.

### Jarduera arautzeko ordenantza

Ibarrako Udalak azoka behin betiko finkatzea erabaki duela jakinarazi du eta helburu horrekin, ordenantza bat prestatu du jarduera hau arautzeko. Bertan, besteak beste, postu bat ipini nahi duten pertsonak bete behar dituzten bal-

dintzak zehazten dira. Hain zuzen, interesa dutenek irailak 14a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren eskaerak.

Baldintzarikoa bat gizarte-segurantzian alta hartuta egotea da bai eta salmenta ibiltariarekin lotutako zergen ordainketan egunean egotea ere. Halaber, eskatzaileek dagokien udal baimena izan beharko dute, eta garbitasun baldintzak zorrotz bete beharko dituzte postua lortzeko.

Egoitza hiru urtean baino gehiagotan Ibarren duten merkatariek, Tolosaldean erroldatuta daudenek eta Ibarren bizitzen hamar urte baino gehiago daramatenek izango dute lehentasuna, ordena horretan. Gainontzeko baldintzak eta udal azokaren funtzionamenduari buruzko xehetasunak Ibarrenko Udaleko Ingurumen Sailean kontsultatu ahal izango dira, 9:00etatik 13:00etara; bestela, berriz, [www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net) web orrian.



## Berriz ere ikasliburuak eskuetan

**HEZKUNTZA** » Iraila. Asmo onen hilabetea; aldaparen hilabetea; lanean hasteko hilabetea, ... Eta eskolara bueltatzeko. Astelehenetik atzora bitarte eskualdeko Lehen Hezkuntzako ikasleak ikasgeletara itzuli

dira, 2009/2010 ikasturteari ekiteko. Gehientsuenak pozik zeuden, ikaskideekin berriz elkartu eta egunero koari eusteko gogoz. Datorren geldialdia Eguberrietan izango dute. INIGO TERRADILLOS

# Kilometroak 09

## Lagun Aro GBC – MMT Real Madrid

**AURREDENBORALDIKO SASKI BALOI PARTIDA KILOMETROAK 2009REN ALDE**  
**PARTIDO DE PRETEMPORADA DEL GIPUZKOA BASKET A FAVOR DE KILOMETROAK 2009**

Partidaren atsedendietan musika eta dantza, Kilometroak 2009ren antolakuntzaren eskutik Música y danza en los descansos del partido de la mano de Kilometroak 2009

**EGUNA:** Irailaren 12an, larunbata  
**ORDUA:** 17:30ean **LEKUA:** Ilunben  
**DÍA:** 12 de septiembre, sábado  
**HORA:** 17:30 **LUGAR:** Ilunbe

**SARRERAK:** 12€ - Bazkideek dohain (borondatezko laguntza eman dezakete)  
**ENTRADAS:** 12€ - Gratis para los/as abonados/as (podrán realizar aportación voluntaria)

**SALGAIA:** Zurriola Ikastolako idazkaritzetan, Kilometroak dendetan (Kalbeton 33 eta Txofre 11), Gipuzkoa Basketeko bulegoetan (Añoetan) eta Servikutxan  
**A LA VENTA EN:** Oficinas de Zurriola Ikastola, Tiendas Kilometroak (Calbetón 33 y Chofre 11), Oficinas de Gipuzkoa Basket (Añoeta) y Servikutxa



# Altzo Azpin eta Abaltzisketan oinezkoentzako bideak egokitzen

**Azpiegiturak** » Lurpeko sahiesbidea eta ezinduentzat egokituta dagoen errepidea egiten ari dira Alegialdean.

## ERREDAKZIOA

Eskualdeko herri asko eta askotara jada bide gorri iristea posible da. Azkenetarikoa, Asteasu-Zizurkil arteko bidea izan zen. Eta lehentariakoa Tolosa eta Alegia artekoa.

Abaltzisketan bidegorriaren parkeoa egiten ari dira eta Altzo Azpin, sahiesbidea lurperatzen.

## Altzo Azpin lurperatze lanak

Tolosa-Alegia bidegorriak, 3,1 km ditu eta 2 fasetan eraikia izan da. Lehena, Tolosatik aterata, 2007. urtean bukatu zen eta bigarrena, 2008an Alegira iritsiz. Hornigoizko kutxa bat tinkatuz, trenbidearen azpitik egindako pasabidea izan zen lanen alde garrantzitsuenak.

Orain, azken zati bat hobetzeko lanetan ari dira ekainetik hasita eta abendurako bukatuta egotea espero da, aurreikusitako epeak betetzeko noski. Foru Aldundiak buztatutako lanak dira eta baita Alegiako Udalak eskatuak ere. Bien helburua, erabiltzaileen segurtasuna hobetzea da.

Tolosatik, Alegiara joateko errepidea gurutzatu behar izaten zuten orain artean bidegorritik zebilen orok. Gaur egun eta sahiesbidea egiteko obrak bukatu bitartean, ibai ertzetik, aldi baterako den errepide zatia jarri dute eta honela, GI-2331 bidegurutzeari arriskurik gabe igaro daiteke.

Aurreikusitako hobekuntzak honako hauek dira: bidegorria lurperatzea egungo GI-2331 bidegurutzeari. Puntu honetatik mota guztietako ibilgailuak eta asko pasatzen dira eta helburu nagusia hori saihestea du. Altzo Azpin errepidearen azpitik hormigoi armatuzko kaxa baten bitartez lurperatuko dute pasabidea.

Bestalde, bidegorriaren plattformak ere zabalduko da Artzabalza industriagunerako sarbidean



Altzo Azpin egiten ari diren sahiesbideko lanak. Ezkerraldean, obrak bukatu bitarteko egin den errepidea. E. MAIZ



Ibilbidearen zati bat da, Txindoki mendia parez pare ikus daitekeelarik. E. MAIZ

eta 30 zentimetroko horma altxatuko da bidearen aldameneko errekan. Drainatzea ere indartuko da eta horrela urak bidegorria ez du estaliko.

Argiterian ere hobekuntzak egingo dira. Iberdrolako zentrala eta Alegia arteko zati argiztatuko dute eta horrela Tolosa-Alegia zati guztiaren argiztapena osatuta geratuko da. Azkenik, seinaleztape-

nean ere zenbait hobekuntza egingo dituzte. Baina guztia bukatutzat ikusi ahal izateko, urte bukaerara arte zain egon beharko da.

## Abaltzisketa-Larraitz

Azkenaldian, Txindokiren magala itxuraldatzen ari da. Abaltzisketako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin zenbait aldaketa egin ditu. Aparentaleku

handi bat egokitu dute, komun publikoak ireki, zuhaitzak dauden lekuan mahaia jarri eta aterpea ere irekia dute. Honekin, «leku atseginaro eta erakargarriagoa» bihurtu nahi izan dute.

Gainera, Abaltzisketa eta Larraitz arteko bidea oso erabilia da aspaldidanik. Txirrindulari eta oinezkoak ere asko dira errepide ertzetik ibiltzen direnak. Aste egune-

an jendea ibiltzen bada ere, asteburuetan hartzen du jende gehien. Hauetako askok, ohitura handia dute egun pasa edota arratsalde pasa bertara joateko eta bide batez, errepide bazerretik ibiltzeko.

Hau ikusita, Abaltzisketako Udalak errepide ertzeko bidezidorrak berreskuratu nahi izan du proiektu honekin. Aldundiari eskaera egin ostean, begi onez hartu

**GI 2331 errepidearen lurpeko sahiesbidea abendurako bukatuta egotea espero dute**

**Abaltzisketa eta Larraitz artean ezinduentzako egokitua izango den ibilbidea egiten ari dira**

**Kilometro eta erdiko ibilbidearekin errepide ertzeko bidezidor zaharra berreskuratu du Udalak**

zuen abaltzisketarren ideia baina hauek, baldintza bat jarri zieten eta hori, ezinduentzako egokitua izatea izan zen.

Larraitz eta Abaltzisketa elkarren dituen ibilbide honek kilometro eta erdi ditu eta bertan haur gazte eta adinekoez gain, urritasun ezberdinak dituztenak ibili ahaliko dira, azken hautentzat egokitutako errepidea prestatzen ari baitira.

Oinezkoentzat, Larraitzetik Abaltzisketako bidegurutzearaino iristen da errepidea. Gurgildun ahulkiak daudenek aldiz, laburragoa dute Abaltzisketa hasieran malda handiegia baitago gurgildun ahulkikoentzat. Atsedean hartzeko edota lasai ederrean bistaz gozatzeko egoteko, hainbat ahulki jarri dituzte. Itsuentzako berriz, errepide ertean zanga txiki moduko bat egin dute eta bastoiarekin ibilbidea jarraitu ahal izango dute. Errepidean zehar informazio guztiak ere izango dira brailez idatzita. Ikusmenaren erabat galduta ez dutenentzat berriz errepidearen bitartean argitxo batzuk jarriko dituzte.

Foru Aldundiak, Gipuzkoako lau natur parkeetan jarri nahi du; Aiako Harrietan, Pagoetan eta Arantzazun. Azken honetan jada erabilgarri dago. Abaltzisketako, epe laburrean bukatua izatea aurreikusitako dute.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**E Elkarrizketa**

**JOSUNE GOROSTIDI** › Euskal Herriko Trontza txapelduna

# «Errekorra eginez txapela irabazteak asko bete nau»

**Txarama** › Ea zein bikotek ebakitzen dizkion azkarren, 45 ontzako enborrari, 10 xafla edo epai. Josune Gorostidiri galdetzea onena.

**ASIER IMAZ**

Etxalarren (Nafarroa), abuztuaren 15ean, Euskal Herriko Trontza Txapelketa jokatu zen. Lurdes Intxaustik eta Josune Gorostidik (Txarama, 1967) irabazi zuten txapela. Irabazteaz gain, Txapelketa marko 17 segundotan hobetu zuten. Txapelaren atzean «lan gogorra eta serioa» dagoela onartu du Gorostidik.

**Nori eskaini diozu txapela?**

Txapelketa aurretik lanean gogor eta serio ibili ginen Idiazabalen, bi hilabetez. Aldamenean norbait edukitzea oso garrantzitsua izaten da horrelakoetan eta gure kasuan, Igor Esnaola eta Joxe, nire senarra, eduki ditugu entrenamenduetan ondoan. Zerrak ere eurek utzi dizkigute eta nire ustez beraie esker lortu dugu Euskal Herriko Trontza Txapelketa irabaztea. Beraz, eurei eskaintzen diet txapela.

**Nolatan osatu duzu bikotea iazko txapeldunetarikoa batekin, Lurdes Intxaustirekin?**

Biok beti egon gara kirol munduarekin harremanetan. Lurdes atletismoan ibilia da eta ni txirrindularitzan. Ondoren kirol saltsan jarraitu dugu eta azken urteetan harreman oso ona eduki dut berarekin. Duela bi urte Trontza Txapelketan berarekin ateratzea eskatu zidan. Orduan ezetz esan nion; haurrak oraindik nahiko txikiak nituen eta entrenamenduetara joateko arazoak izango nituelako. Orduan Maiderekin Maziziorrekin osatu zuen bikotea. Gogor lan eginda txapela irabazi zuten. Aurretik Maiderekin gelditu da eta berriro deitu zidan. Proba bat egin eta elkarrekin oso gustura ibili ginen, ateratzea erabaki genuen.

**Hasieratik al zenuten Euskal Herriko Txapelketa buruan?**

Apirilean hasi ginen entrenamenduekin. Tartean erakustaldiak ere egon dira, baina lehen egunetik Euskal Herriko Txapelketa prestatzen ibili gara buru-belarri.

**Eguna iritsi zenean, Etxalarren, nola sentitu zenuen zure burua?**

Urte askotan zehar kirola egiten ibili arren, oraindik urduri jartzen naiz. Uste dut gainera lasai egoten

ahaztu egin zaidala. Baina trontzan bi izaten garenez, bata bestearen babesean, hobeto ematen da. Etxalarren nahiko urduri nengoen. Beroketak egiten hasi ginenean elkarri zer moduz ginen galdetu genion eta sentsazio onekin nengoela esan nion Lurdesi. Pare bat epai ebaki genituen eta... azkenean Txapelketa oso borobila irten zitzaigun.

**Aurten gainera sei bikote aurkeztu ziren Txapelketara.**

Kopuru oso polita dela iruditzen zait. Pozgarria da emakumeak herri kirolean ere hor gabiltzala ikustea.

**Behin lanean hasi eta 4 minutu eta 25 segundotan kitto.**

Bizkaitarrekin beldur pixka bat bagenuen, duela bi urte eurek irabazi baitzuten txapela. Baina gure lana egin eta azken postuan gelditzen baginen, besteak hobeto ibili zirelako izango zen. Eta hor ezin duzu ezer egin. Gure lana egitera irten ginen eta egia esan oso ondo ateratu zitzaigun dena. Irabazi eta gainera errekorra.

**Marka gainera, iaz lortu zuten Maiderekin Maziziorrekin eta Lurdes Intxaustirekin.**

Aurretik zegoena bi segundotan hobetu zuten. Aurten berriz 17 segundo kendu dizkiogu marka horri. Lurdesek Maiderekin marka eta Euskal Herriko Txapelketa irabazteak presio pixka bat sortu zidan, baina erronka bat bezala hartu nuen. Txapela errekorra eginez irabazteak asko bete nau.

**Gozatzeak aukerarik eduki al zenuen 4 minutu horietan?**

Gozatu, gozatu... agian azkeneko epaian. Joxe, senarra, eta Igor Esnaola ondoan geneuzkan eta aurretik gindoazela esaten ziguten. 10. epaian txapela gurea zela ikusi eta orduan eduki genuen gozatzeak aukera pixka bat. Nik uste azkarrena hura ebaki genuela, irabazteak sortzen zigun poz horrek lagunduta.

**Intxaustirekin osatu duzun bikoteak jarraipenik edukiko al du?**

Maiderekin azarorako espero du haurra. Eurek osatzen dute bikotea eta nik behintzat jarraitzeko



A. IMAZ

aukera emango diet. Maiderekin ezetz esango balu eta Lurdesek nahiko balu, beste urtebetean guztiezin gustura ibiliko nintzateke. **Hasieran txirrindulari, orain trontzan...**

17 urterekin hasi nintzen txirrindularitzan eta 24rekin utzi nuen. Egia esan oso gazte nintzela utzi nuen. Orduan ez zara konturatzin; gero pentsatzen duzun gauza da hori. Kanpoan asko ibiltzen ginen: mundialetan, Tourrean, Olinpiadan... Aspertu edo erre egin nintzen pixka bat eta gero badakizu, mutil laguna, ezkondu, haurrak... behin umeak koxkortzen direnean, berriro irteten zaizu barneko ar hori. Nire kasuan gainera, gizona herri kirolean ibiltzen denez, saltsa horretan ibili naiz. Lurdesekin orain aukera hau izan dut eta gustura.

**Trontzan erabiltzen diren errekorrek badute bere historia, ezta?**

Probara bakoitzak berea ematen du. Orain dela urte batzuk Euskal

Herriko trontzekin ateratzen ziren txapelketetan denak. Gero, Australiako zerrak askoz gehiago ebakitzen zutela konturatu ziren eta denak horrelakoak erabiltzen hasi ziren. Duela urte batzuk gauza bera gertatu zen, baina oraingoan zerra amerikarrekin. Hauek hortz luzeagoak dituzte baina australiarren aldean, bikoi-

tza pisatzen dute: 8 kilo. Orain bikote guztiak amerikarrekin irteten gara. Entrenatzeko aldi, australiarrek erabiltzen ditugu, amerikarrak amustuz gero, zorrotzeko aukerarik hemen ez baitago. Lurdesek eta biok Etxalarren erabili genuen zerra adibidez, geldirik egongo da hurrengo urteko Txapelketa bitarte.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Extremadurako plater tipikoen lehiaketa eta dastaketa La Jaran 19:30ean, Kultur Astearen baitan.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek 13rako mendi irteera bat antolatu Orbaran hasi eta Berrendi (1.354 m), Gofiuburu (1.464 m), Idorrokia (1.492 m), Abodi (1.533 m) mendiak igoz. Irteera, Santa Klaratik 07:30ean. Izen-ematea: 943 652789 edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com).

■ **Tolosa.** La Larri eta Foz de la Canalen arroi jaitziera antolatu du Oargi mendi elkarteak hilaren 18tik 20ra. Izen-ematea 688 69 86 42 telefonoan edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidean eta ondoren, 3035 0028 110281141038 kontu korrontean 20 euro sartu.

■ **Villabona.** Hilaren 19 eta 20rako Picos de Europa irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkarteak (649 717182, ostegunetan 20:00etatik 22:00etara).

### Kirola

■ **Tolosa.** Proba ezazu zuk zerorrek lelopean, Udalak emakumeei zuzendutako lasterketa entrenamendu ikastaroa antolatu du iaz bezala, doan. Informazioa eta izen-ematea, Usabal kiroldegian.

### Jaiak

■ **Zizurkil.** 13:00etan jubilatuen jokoak, 14:00etan jubilatuen bazkaria, 17:00etan Pirritx eta Porrotx pailazoak, ondoren txokolatada eta buruhandiak, 20:00etan Kantu kale (tarteak partehartzaileek zenbait pintxo dastatu eta barrikotea), 23:00etan Laket taldea.

### Zinema

■ **Tolosa.** *El apartamento* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburun.


### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.


Mendira joatea dugu gustuko eskualdean; agerian geratzen da Pirinioetatik heltzen zaizkigun argazkietan; Ion Alejosek eta Haritz Aranak ere han inguruan igaro dute udako oporraldia.

# Pirinioetatik irudi ederrak



**SARRIOEN BAILARA (PIRINIOAK)** «Euskaldunak mendizaleak gaila agerian geratzen da gura argazki lehiaketan. Argazki asko heltzen zaizkigu, Haritzena adibidez. Hauxe azaldu digu. «Sarioen bailara, edozein unetan dinosauroak aterako direla dirudien paisaia ederra.». HARITZ ARANA

**KATALUNIAR PIRINIOAK** «Uztailaren 31tik abuztuaren 2ra bitartean kataluniar pirineoan dauden Els Encantats 2748m eta Peguera 2982m egin genituen Oargi mendi elkartearen eskutik». ION ALEJOS



## A Agurrak



### Urte askoan!

Oier eta Eñaut. Zorionak eta segi alai-alaiak izaten. Aitaxo eta amatxo.

agurrak urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...




### Urte askoan!

Izaro Etzaniz (Tolosa). Gaur 12 urte. Familia guztiaren partetik eta besarkada handi bat guapisima.

egunean 20 zentimoren truke, ZUREA DA HITZA

**ORAIN harpidedun egin eta bidaia paregabe bat eskuratu dezakezu!**



mallorca • tunisia • tenerife • europako hiriburuak • balnearioak  
2 laguntzat bidaia

ez galdu aukera

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali zure datuak:  
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31800 Leitza

Izen-abizenak, helbidea, herria, PK, telefona, p.elekttronikoa eta kontu zenbakia

Deiak eta datuak jasotzeko azken eguna: urriak 30  
Saridunaren izena egunkarian: azaroak 6